

## ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA

(2022ko abendua)

Prentsa oharra

### SARRERA

Azterlan honen gaia izan da Euskadiko biztanleek aniztasuna eta elkarbizitzaren inguruko zenbait alderdiri buruz dituzten pertzepzio eta jarrerak. Landa-lana 2022ko urriaren 20tik 29ra bitartean egin zen.

#### Askatasuna eta elkartasuna, bizikidetzaren osagai

EAEko biztanleriak elkarbizitza arazoak desberdintasun sozialekin eta arazo ekonomikoekin lotzen ditu batez ere (% 36k bi gai nagusien artean aipatzen dituzte), eta ondoren arrazismoa, etorkinen integrazioa eza eta desberdintasun kulturekin (% 20), delinkuentzia, bandalismoa, kaleko borroka eta, oro har, indarkeriarekin (% 16), eta errespetu falta, intolerantzia, komunikazio falta, indibidualismoa, eta abarrekin (% 15).

Herritar gehienek (% 61ek) uste dute bizikidetzaren bizitzeko modu bat partekatzea dela, pertsonen arteko desberdintasunak errespetatuz, eta % 38k, berriz, norberak nahi duen bezala bizitzea, besteak gogaitu gabe.

Elkarbizitza ona izateko herritarrentzat askatasuna eta elkartasuna, biak, dira garrantzitsuak. Inkestatuen % 44k diote garrantzitsuena dela "bakoitzak bere ideiak askatasunez adierazi ahal izatea", % 29k "jendeak sentitzea bere komunitatearen parte dela", %29k "jendea bere ingurukoak zaintzeaz arduratzea", eta % 7k "norberak bere erabakiak hartu ahal izatea".

#### Gehiengoak nahiago du askotariko gizartea

Aukeratu ahal izango balute, herritar gehienek (% 79) nahiago lukete askotariko gizarte batean bizi, jatorri, kultura, sinesmen, sexu-joera, eta genero-identitate desberdinetako jendearekin. Aitzitik, % 17k nahiago lukete jende gehienak jatorri, kultura, sinesmen, sexu-joera eta genero-identitate berak dituen gizarte batean bizi. Adinean aurrera egin ahala, txikiagoa da askotariko gizartean bizitzea aukeratuko luketenen ehunekoa, nahiz eta hori den aukera nagusia 65 urtetik gorakoen artean ere.

Biztanleriaren erdia inguruk harreman oso edo nahiko ohikoak ditu alderdi jakin batzuetan beragandik oso desberdinak diren pertsonekin: %57k iritzi politiko oso desberdinak dituzten pertsonekin, %51k orientazio sexual desberdinak dituztenekin, %47k maila sozioekonomiko oso desberdina dutenekin eta %44k kultura edo erlijio desberdina dutenekin.

Herritarrek Euskadiko bizikidetzaren arazo nagusitzat jotzen dituzte desberdintasun sozialekin eta arazo ekonomikoekin lotutakoak (% 30ek bi arazo nagusien artean aipatzen dituzte), arrazakeriarekin, etorkinen integrazioa ezarekin eta desberdintasun kulturekin lotutakoak (% 24), gatazka politikoekin eta desberdintasun ideologikoekin lotutakoak (% 22) eta errespetu, tolerantzia edo gizalage faltarekin, indibidualismoarekin, berekoikeriarekin eta abarrekin lotutakoak (% 22).

Inkestatutako pertsona gehienek iritziak, Euskadin diskriminazio-motarik zabalduena jatorri etnikoak edo etorkina izateak eragindakoa da (% 52k uste dute oso edo nahiko zabaldua dagoela), eta, ondoren, larruzalaren koloreagatik diskriminazioa (% 38), sexu-orientazioagatik diskriminazioa (% 34), generoagatikoa (% 34), erlijio edo erlijio-sinesmenengatikoa (% 30), desgaitasunagatikoa (% 28) eta, azkenik, adinagatikoa (% 23). Gazteek gainerako biztanleek baino gehiago hautematen dituzte diskriminazio-mota horiek guztiak.

#### Jende guztiarekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimendua handitu da

Biztanleriaren % 50 libre sentitzen da mundu guztiarekin politikaz hitz egiteko, % 37 pertsona jakin batzuekin bakarrik sentitzen da libre, eta % 11 ia inorekin ez. Politikaz hitz egiteko askatasun-sentimendua gora egin du 2018an egindako aurreko neurketatik, orduan % 41ek esan baitzuten libre sentitzen zirela jende guztiarekin hitz egiteko.

Euskal herritarrek 6 punturekin kalifikatu dute, 0tik 10era bitarteko eskalan, Euskadin ideia politiko desberdinak dituzten pertsonen arteko bizikidetzaren balorazio horrek pixka bat behera egin du 2017tik, 6,2koa baitzen.

Herritar gehienek (% 68) entzun dute motibazio politikoko indarkeriaren biktimen memoriarako zenbait erakunde egiten ari diren ekintzen berri, nahiz eta horietako askok ez dakiten ondo zer egiten ari diren. % 31k ez dute ekintza horiei buruz ezer entzun.

Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen memoriarako ekintza horiei buruz ezer entzun duten ala ez alde batera utzita, herritarren % 60k uste dute ekintza horiek bizikidetzarako lagungarriak direla, eta % 33k, berriz, bizikidetzaren ona izateko hobe dela iragana gogora ez ekartzea.

### **Kultura eta jatorri desberdinetako pertsonen arteko elkarbizitza hobera doa**

Euskal biztanleriak 6,6 punturekin balioesten du 0-10 eskalan bere udalerrri edo auzoan hemengo biztanleriaren eta biztanleria atzerriarraren artean dagoen bizikidetzagiroa. Puntuazio horrek gora egin du apur bat 2018tik egindako neurketa bakoitzean; orduan 6,3koa zen.

Era berean, Euskadin kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzaren balorazioa 6,4koa da 0tik 10era bitarteko eskalan, eta 5,9 puntukoa zen 2017an.

Herritarren % 13k sentitu dute bere kultura edo erlijioagatik baztertu egin dutela noizbait edo askotan, Euskadin. Ehuneko hori % 36koa da atzerrian jaiotakoaren artean.

EAEko biztanle gehienak ados daude bizikidetzak hobea lortzeko bai atzerriarrek bai bertakoek ahalegina egin behar dutela esatearekin, % 77 beste talde etniko batzuetako etorkinek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela diotenekin, eta % 58 beste kultura edo erlijio batzuetako pertsonak Euskadin dituzten ohituren arabera janztea egokia dela esatearekin. Hiru iritzi horiekiko adostasun-mailak gora egin du 2018tik.

### **Gehienek uste dute sare sozialetako jazarpen egoerek sareetatik kanpoko elkarbizitzari eragiten diotela**

Herritar gehienek (% 58) uste dute Facebook, Twitter, Youtube eta antzeko sare sozialek bizikidetzari kalte egiten diotela, eta %18k, aldiz, uste dute bizikidetzak hobetzen laguntzen dutela. Gazteen artean, sare sozialen pertzepzioa gainerako herritarren artean baino positiboagoa da, baina kolektibo horretan ere gehiengoak dira bizikidetzari kalte egiten diotela uste dutenak.

Inkestatutako 10 pertsonatik 7k uste dute sare sozialetan gertatzen diren hitzezko indarkeriako edo jazarpeneko egoerak arazo larria direla, eta horrek eragina duela sareetatik kanpoko bizikidetzan. % 14k uste dute arazo larria dela, baina ez diola eragiten sareetatik kanpoko bizikidetzari, eta % 9k ez dute uste arazo larria denik.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm$  % 2,76koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2022ko urriaren 20a eta 29a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 13a